

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **80/2021 Mozioa, urriaren 27koa, Bergantzuko Uraren Ibilbidea Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Arloko Plana behin betiko onartzeko prozeduran jasotzeari buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko urriaren 27an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

80/2021 Mozioa, urriaren 27koa, Bergantzuko Uraren Ibilbidea Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Arloko Plana behin betiko onartzeko prozeduran jasotzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek aitortu egiten dute Bergantzuko Uraren Ibilbidea Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Arloko Plana behin betiko onartzeko prozeduran jaso dela, eta eskatzen dute ibilbide horri aplikatu dakiola Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen 1/2012 Foru Araua.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote aurkez dezala Arabako Batzar Nagusietan Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Arloko Plana, plana behin betiko onartutakoan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 27a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**